



OÑATIKO UDALA

idazkaritza@onati.eus
Telefonoa 943 76 04 11
Fax 943 75 30 69
20520 OÑATI

AKORDIO JAKINARAZPENA

NOTIFICACIÓN DE ACUERDO

IRTEERA-ERREGISTROA

Zkia 1009

Data 2022-4-27

Udal Osoko Bilkurak 2022ko martxoaren 31n egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

9.- Hobeki elkartearen (hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko toki-erakundeen elkarte) kide egiteko proposamena onartzea, Ingurumen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko martxoaren 15ean.

Gaia: Hobeki elkartearen (hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko toki-erakundeen elkarte) kide egiteko proposamena onartzea.

Aitor Gerenabarrena Osa (Nekazaritza-Auzoak eta Ingurumen teknikaria jauna) 2022ko martxoaren 15ean egindako Ingurumen Batzordearen sinatutako aktak dio:

"Hobeki elkartearen (hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko toki-erakundeen elkarte) kide egiteko proposamena (1052/esp)

2012ko martxoaren 28an Udal Osoko Bilkurak egindako bileran hondakinen buruzko mozioa onartu zuen, besteak beste, honako konpromisoak hartu ziren:

- *.- Oñatiko udalak Mankomunitatearekin batera adostuko du konpostatze kanpaina zabala egitea herriko familien artean.*
- *.- Oñatiko udalak ahalik eta gehien birziklatze aldera, emaitza onenak lortzen dituen hiri hondakinen bilketaren alde egiteko konpromisoa hartzen du, eta %80ko birziklatze maila lortzen ari den sistema bakarra atez ateko bilketa da gaur egun.*
- *.- Udalak etengabeko urratsak emango ditu Oñati zero zabor lurraldea bihurtzeko bidean.*

Batzordeburuak azaldu du Hobeki elkarte "hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko toki-erakundeen elkarte" kide izateko gonbitea jaso duela.

Hobeki elkarte 2018ko maiatzaren 14an sortu zuten Hernani, Donemillaga, Larrabetzu eta Leintz Gatzagako udalek. Hobeki elkartearen helburu nagusia da toki-erakunde ezberdinen arteko elkarlana eta koordinazioa ematea. Udalen eskumenen barne, eta Hobeki elkartearen printzipioekin koherente izanez, kudeaketarako egitasmoa edo programa propioak eta koordinatuak martxan jartzea da azken xedea.

Hobeki elkartearen estatutuek Euskadiko Elkarteei buruzko 7/2007 Legea eta elkartzeko eskubidea arautzen duen 1/2002 Lege Organiko betetzen dute. Elkarteak honako printzipio eta konpromisoak ditu:

Printzipioak:

- 1. Osasunaren eta ingurumenaren zaintza lehenesten dugu hondakinen kudeaketan. Ez da kudeaketa onik herritarron osasuna arriskuan jartzen badu, edo naturari kalte egiten badio.*
- 2. Herritarrok eta herri-erakundeok elkarren eskutik joan behar dugu. Eginkizun honen izaera kolektiboa nabarmentzen dugu, eta gizalegez jokatu beharra azpimarratzen. Hondakinak ondo sailkatzea guztion betebeharra da, eta ondo sailkatutakoak ondo tratatzea herri-erakundeon betebeharra da. Utzikieriaz edo zabarkeriaz jokatzeari, aldiz, ez da inoren eskubidea. Kostu ekonomikoak portaeretara doitu behar dira: ez da jarria jokabide egokia dutenei besteen utzikeria ordainaraztea.*

3. Herritarrak ahalduz eskatzen du, batetik, prozesu osoaren parte aktibo izateko aukera ematea, bigarrenik, hondakin horiekin hasieratik bukaerara zer egiten den garbi azaltzea, eta, hirugarrenik, erabakietan parte hartzeko aukera ematea.
4. Kudeaketak hondakinen zikloa bere osotasunean hartu behar du, ikuspegi zirkularra landuz. Sortutako hori naturara itzuli behar da, kalterik eragin gabe, eta, ahal dela, modu probetxugarrian. Hondakinak izan bitez lehengai.
5. Edozein tratamenduren abiapuntutzat dugu murriztea. Hondakinik onena sortzen ez dena da. Prebentzio neurriak zorrotzu beharra dago, erakundeen inplikazio irmoz.
6. Bilketak eraginkorra izan behar du, horretan oinarritzen baita ondorengo tratamendua. Langintza horri dedikatzen zaiona, aurreragoko inbertsioa da. Gaika biltzeko alderdi kuantitatiboari nahiz kualitatiboari dakarkio hobekuntza. Bilketaren emaitza neurtu, ebaluatu eta hobetu beharra dago etengabe, eta zeregin horretan beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak aplikatu behar dira.
7. Murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea dira, ordena horretan, lehenetsi beharreko tratamenduak.
8. Europako jarraibideek agindutakoarekin bat, balorizazio materiala hobesten da balorizazio energetikoaren kaltetan. Europako erakundeek garbi adierazi dute gaur egun ez duela zentzurik erraustegirik eraikitzeak, Europak lehen ere sobera dituelako horrelako azpiegiturak. Ezetz diegu, halaber, zabortegi konbentzional kutsakorrei.
9. Azpiegitura lokalak lehenesten ditugu, tokiko garapena indartzea eta garraioa murriztea dakartelako, besteak beste. Era berean, azpiegitura eskalagarrien alde egiten dugu, azpiegitura zurrinak baztertuz, etorkizuna hipotekatu gabe garaian garaiko baldintzetara egokitzeak aukera ematen dutelako. Multinazionalen negozio-gosearen aurretik, herritarren interesa lehenesten dugu.
10. Aurrerakuntza teknologikoei duten garrantzia eman behar zaie. Hondakinen sailkatze gero eta finagoa eta xeheagoa beharrezkoa da, eta material egokiak erabiliz, horiek berrerabiltzeko eta birziklatzeko teknologietan inbertitu beharra dago.

Konpromisoak:

1. Elkartearen printzipioak onartzen ditugu, eta hondakinen politika printzipio horien arabera garatzeko konpromisoa hartzen dugu.
2. Udalerrriaren unean uneko egoeraren berri emango diogu elkarteari. Horretarako, ahalegina egingo da adierazleen taula osatzen, datuak lortzen, eta eskuratutako datuak elkarteari jakinarazten. Horrela, urteetako bilakaera jasotzeko eta erregistratzeko konpromisoa hartzen da. Egoeraren arabera, udalerrriak mailaka sailkatuko dira elkartearekin bat egiten duten momentuan.
3. Udalerriko hondakinen kudeaketarako plangintza bat diseinatu eta martxan jartzeko konpromisoa hartzen da. Plangintza horretan jasotako neurriak eta helburuak koherenteak izango dira elkartearen printzipioekin.
4. Tratamendu finalistara doan zatia ahalik eta txikiena izateko konpromisoa hartzen da. Zabortegi konbentzionalen edo errauste-planten ordeztu, bestelako tratamendu jasangarriak hobetsiko dira.

Gaia aztertu ondoren, Ingurumen Batzordeak aho batez eskatu dio Udal Osoko Bilkurari honako erabakia hartu dezala:

Lehenengoa: Toki-araubidearen oinarriak onartzen dituen 7/1985 Legearen 5. xedapen gehigarriak araututakoa kontuan izanda, Hobeki Elkartearen kide izatea eta elkartearen estatutuak onartzea

Bigarrena: elkartearen ordezkari Axier Iraeta Izagirre jauna izendatzea

Hirugarrena: elkartearen printzipioak eta konpromisoak onartzea

Laugarrena: elkarteri aurreneko 5.000 €-ko ekarpena onartzea (1 1106.481.172.02.01 2022 "5567")."

Udaleko idazkariaren 8/2022 txosten juridikoa dago espedientean, 2022/03/23koa.

Oñatiko Udalaren Osoko Bilkura da elkarteari atxikitzea erabakitzeko organo eskuduna, eta, TAOLen 47.2 g artikulua aplikatuz, korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz hartu beharko du erabakia.

Gaia aztertutik, eta Ingurumen batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Toki-araubidearen oinarriak onartzen dituen 7/1985 Legearen 5. xedapen gehigarriak araututakoa kontuan izanda, Hobeki Elkartearen kide izatea eta elkartearen estatutuak onartzea.

Bigarrena.- Elkartearen ordezkari Axier Iraeta Izagirre jauna, Oñatiko zinegotzia, izendatzea titular bezala, eta bere ordezkoa Oñatiko Alkatea, Izaro Elorza Arregui.

Hirugarrena.- Elkartearen printzipioak eta konpromisoak bere osotasunean onartzea.

Laugarrena.- Elkarteri aurreneko 5.000 €-ko ekarpena onartzea (11106.481.172.02.01 2022 "5567") dagokion partida eta bere lotespen mailaren kontura. Hurrengo ekitaldietako konpromiso ekonomikoak aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa egotearen mende egongo dira.

Bostgarrena.- Atxikimendu honen iraupena epe mugagabekoa izango da.

Seigarrena.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea.

Zazpigarrena.- Erabaki hau kontu-hartzaileari eta diruzainari jakinaraztea.

Zortzigarrena.- Alkateari ahalmena ematea akordio hau gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak sinatzeko.

Gaia aztertuta, eta Ingurumen Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamabost bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

n

INPUGNAKETA-BIDEAK

Honen berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako. Bide batez, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko **AUZI-ERREKURTSOA** aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, Donostian, **BI HILABETEKO EPEAN**, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1.998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. c) artikuluekin bat etorriz.

Nolanahi ere, **nahi izanez gero**, aurreko idazatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, **BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA** aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari **HILABETEKO EPEAN** jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsuak aurkezteari kalterik egin gabe.

MEDIOS DE IMPUGNACION

Lo que se le/s notifica a Vd/s. a los efectos procedentes, significándole/s que, contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrá/n Vd/s. interponer en el plazo de **DOS MESES**, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, **RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO** ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo con sede en Donostia-San Sebastián, a tenor de lo establecido en los art. 8 y 46 de la Ley 29/1.998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el art. 114.c) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, con carácter potestativo, y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer **RECURSO DE REPOSICIÓN**, ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de **UN MES** que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Todo ello, conforme a lo establecido en los artículos 123, 124 y concordantes de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare/n oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.